

ZINEMA-ARTEA. Haren lan grafikoaren erakusketa zabaldu dute Koldo Mitxelena Kulturuneko Ganbara aretoan

Ivan Zulueta: «‘Drakula’-ren bertsio fidel bat zuzenduko nuke gustura»

Zinemagintzaren alorrean lanean jarraitzeko «gogo bizia» erakutsi du egile omenduak

Juan Luis Zabala | DONOSTIA

Arte grafikoaren arloan zein zinemagintzarenean lanean jarraitzeko gogo duela adierazi zuen atzo Ivan Zulueta donostiar artista eta zinemagileak, ondorengo asteetan haren omenez egingo diren ekitaldien aurkezpenean. *Drakula*-ren bertsio bat egitea nahiko lukeela esan zuen, zehazki, Zuluetak. «Bertsio fidel bat egingo nuke gustura, jatorrizkotik ahalik eta gertuenekoa», gaineratu zuen. «Francis Ford Coppolake egin zuen bertsioa oso fidela zen, baina ez nire gustukoa, eta nik uste dut badagoela aukerarik nahi adina bertsio egiteko».

Enkarguko lanak egiteko ere prest agertu zen Zulueta, «gidoia ona izanez gero, eta niri interesa pizteko moduko egitasmoa izanez gero». Gustuko generoak ere zehaztu zituen: beldurrezko filmak eta musikalak batez ere.

Begoña del Teso zinema kritikariak ere argi utzi zuen amaitu gabeko bide irekia dela Zuluetak zinemagintzaren munduan orain arte urratutakoa. «*Arrebato*-k ez dio ezeri bukaera jartzen», aldarrikatu zuen Del Tesok. Omenaldiaren barruan egingo diren zinema emanaldien antolatzaileetako bat da Del Teso.

Ivan Zuluetak zinemagintzarekin «harreman fisikoa» du, Begoña del Tesoren iritziz. «Zulueta zinemagintza ukitu, usaindu, dastatu egiten da; Zulueta zinemagintzak ostikoa jotzen dizu sabelean; Zulueta zinemagintza sentsuala da guztiz».

Jose Luis Rebordinos Donostia Kulturako Zinema Unitateko



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Ivan Zulueta artista eta zinemagilea, atzo, Koldo Mitxelena Kulturuneko Ganbara aretoan.

teko arduradunak ere Zulueta zinemagintza laudatu zuen atzoko ekitaldian, eta pozgarritzat jo zuen «bizi dugun homogeneizazio politiko eta kultureko garaioan heterodoxo baten omenaldia jasotzea».

Omenaldiarekin harrituta eta eskertuta

Egunotako erakusketak eta zinema emanaldiak antolatu dituztenei eskerrak eman zizkien Zuluetak, eta haien ahalegina-ekin eta beroarekin «harrituta» zegoela esan zuen. Pilar Sanchez, Begoña del Teso eta Virginia Lopez Montenegrori eman zizkien bereziki eskerrak. Del Teso bezala, Lopez Monte-

negro ere ondoan zuen atzoko aurkezpenean. Pilar Sanchez buruz, berriz, duela bizpahiru arte afixagintzan aritzeko bul-tzada handia eman ziola ekarri zuen gogora Zuluetak.

Koldo Mitxelena Kulturuneko Ganbara aretoan Zuluetak 1957tik —14 urte zituenetik— gaur arte egindako lan grafikoaren zati handi bat ikusteko aukera dago jada egunotan, *Imagen/enigma* izeneko erakusketan; marrazkiak, ilustrazioak, zirriborroak, afixak... Erakusketa hori osatzen duten irudien bilketa eta aukeraketan Virginia Lopez Montenegrok gogor egin du lan, Ivan Zulueta-ekin berarekin batera. Milaka obra eta zirribo-

ro izan dituzte esku artean, horietako batzuk egileak aspaldian ikusi gabeak, ia ahaztuak, eta irudi horiekin topo egitean izandako ezustekoak ez dira gutxi izan, Zuluetak atzo azaldu zenez. *Imagen/enigma* erakusketa azaroaren 2ra arte izango da zabalik, asteartetik larunbata bitarte, goiz eta arratsalde.

Erakusketaren katalogoa ere aurkeztu zen atzo, eta Zuluetak zorionak eman zizkien egin dituztenei. «Neuk behintzat inolako dudarik gabe erosiko nuke», komentatu zuen artistak, txantxetan. «Katalogo lodia osatu dugu», adierazi zuen Joxean Muñozek, erakusketaren antolatzaile eta katalogoaren prestatzaileetako batek, «irudi bakoitza lehergailu bat baita».

Lan grafikoaren arloan, Polaroiden manipulazioa du azken aldian zeregin gustukoena Zuluetak, eta bide horretan «gozatzeko jarraitzeko» asmoa agertu zuen atzoko ekitaldian. Horretaz gain, zirriborroen balioaz eta aberastasunaz ere egin zuen gogoeta: «Askotan zirriborroa bera izaten da obra amaitua baino aberatsago», adierazi zuen, «gero norberak zein besteek moztuko dizkieten hegoak izaten baititu artean ere. Zirriborroa ausartagoa izaten da maiz, freskoagoa, obra amaitua baino».

Hitzaldi bi eta zinema ziklo bat emango dituzte Guggenheim museoan

Erredakzioa | BILBO

Caravaggio, Velazquez eta beste artista batzuek irudiak handitzeko lenterak erabiltzen zituztela iradokitzen lehena David Hockney izan zen. Hark esandakoak, baina, apenas izan zuen eragina arte munduan, praktika hura ezinezkoa jotzen baitzen. Baina ildo hori berreskuratu eta gaur egun oinarri sendoak dituzten teoriak osatu ditu Charles Falco katedratiko estatubatuarra. Arizonako Unibertsitatean, zientzia optikoen irakaslea da Falco, eta lenteren tamaina eta forma kalkulatu ahal izateko, fisika erabili du. *Artearen historia, optikaren zientzia* izenburuko hitzaldian, Falco orain arte egindako ikerketen emaitzak jakinaraziko ditu gaur, Guggenheim museoan. Saioa arratsaldeko 19:30ean hasiko da.

Bestalde, *Paris: arteen hiriburua 1900-1968* erakusketaren harira, museoan *Auzo latinoa: artea eta barrikadak* mahai-ingurua antolatu dute ostegun honetarako. Bertan, besteak beste, Daniel Buren artistak eta Jorge Semprun idazleak parte hartuko dute.

Donostiako Zinemaldiarekin bat

Aurten Donostiako Zinemaldiak 50 urte beteko dituela eta, Guggenheim museoak jaialdiaren ospakizunekin bat egingo du. Hain zuzen, hilaren 23tik 27a bitartean ekitaldiarekin nolabaiteko harremana duten filmak emango ditu. Hurrenez hurren, aukeraturiko lanak ondoko hauek dira: Francis Ford Coppolaren *The rain people* —zuzendariak Zinemaldian jasoko duen omenaldia aprobetxatuz emango dute—, Terence Malicken *Badlands*, Victor Erizeren *El espíritu de la colmena*, Joel Coenen *Miller's crossing* eta Bertrand Tavernierren *Capitaine Conan*. Filmak jatorrizko bertsioan eta gaztelaniazko azpitutluekin ikusiko dira, 19:30etik aurrera.

GAUR, MARATOIA

Zulueta filmografia ia osorik ikusteko aukera

Ivan Zulueta zinemagintza ezagutzeko parada aparta eskainiko du gaur 11:00etan hasi eta goizaldeko 02:30ean amaituko den zinema maratoiak, Donostiako Antzoki Zaharrean. 11:00etatik 14:30era bitarte, *Último grito* film laburra eta *Un, dos, tres, al escóndite inglés* film luzea emango dituzte, 17:00etatik 18:00etara *Párpados* eta *Ritesti* film laburrak; 18:30etik 19:50era bost film labur; 20:00etan *Arrebato*

—egilearen lanik ezagunena—; eta 22:30etik goizaldeko 02:30ak arte, Zuluetak 1964tik 1978ra bitarte Super-8 formatuan egindako hamaika film labur. Gaurko emanaldi guztiak egileak berak erabilitako formatuan egingo dira, hots, zeluloidean, eta sarrera doan izango da.

Gaur Antzoki Zaharrera joaterik ez duenak izango du Zulueta filmak ikusteko beste aukerarik, irailaren 17tik urriaren 31ra bitarte hainbat emanaldi izango baitira Koldo Mitxelena Kulturunean. Emanaldi horiek, gaurkoak ez bezala, bideo formatuan egingo dira, omenaldien antolatzaileek Zulueta filmografia ia osoa digitalizatu dutela baliatuta.